

_elkarrizketa:

JOKIN CARAMES > “Historia zertzeladak dituen eleberria da Kexaako gerlariarena”

10.or

Kirola

Zuriñe Frutos mendi-lasterkaria hirugarren Euskal Kopan 13. or.

Kultura

Gernikako arbolaren hamabi kimu hazi dira Aiaraldean 11. or.

Sozioekonomia

Saltokiak igandeetan irekiatzearen aurkako mobilizazioak 6. or.

Iritziak:

ANDONI ALDEKOA 2. or.
RAUL ARZA 6. or.
MAIDER IGLESIAS 7. or.
KOLDO IRIARTE 13. or.
PATXI ITURREGI 10. or.
J.M. ETXEBARRIA 11.or
MIREN AYESA 16. or

aiaraldea

Aiaraldeko hamabostekaria
2014 /// Azaroak 6 ///
OSTEGUNA
22. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Euskal estatu batean bizi nahi dutela erabaki dute Arrankudiaga eta Zolloko herritarrek

_kirola:

SOKATIRA AIARALDEAN

> 80-90. hamarkadak izan ziren Aiaraldeko sokatiraren urrezko aroa

> Gaur egun, Artziniegako emakumezkoen taldea baino ez dago

ESPEZIE INBADITZAILEAK: Ugaritu egin da kanpotik etorritako animali eta landareen kopurua. Instituzio eta herritarrek neurriak hartu dituzte 7 or.

Konpromisoa
gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin

JEZ
euskararekin

JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar, z/g • 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

_iritzia

Andoni
Aldekoa
KAZETARIA

_Leihotik

Plan ekonomikoa

Industria- jarduerak Euskadin krisia hasi zenetik %20 egin du behera, sektoreko lan postuetan galera handiago bat eraginez. "Aceros de Llodio"k 1982an krisiak jo zuenetik, alor honetan gertatzen ari denaren adibide argia da Aiara. Krisi bakoitzean, hamarkada bakoitzean, eskualdearen industria gaitasuna ahultzen joan da. Eta horrek, etorkizunera begiratuz gero, hotzikara eragiten du; zonaldean euren jarduera jorratzen duten enpresa handien beldurrak serioski aintzat hartzen badira. Industria sektorean tamainak garrantzi handia dauka: enpresa handiek soilik, eta ez guztiek, krisia gainditzen jakin badakite. Baldintza soziolaboralek garrantzi handia dute; kualifikatutako giza baliabideak ditugu baita gehiegizko lan tirabira ere. Horregatik, beharrezkoa da ekoizpena hobetzea.

Baldintza soziopolitikoek garrantzi handia dute; enpresa batek baino gehiagok bere mugikortasun edo zabalkuntza plantetatzeko instituzioen babesa bilatu izan dute eta arduradun politikoen zorroztasun eta hoztasunarekin egin dute topo. Gogoeta hauek ez dute gainbehera edo norbanakoaren arrangurak eragin nahi, bestelako xedea dute: Aiaralderako Plan Ekonomiko bat artikulatzeko beharraz ohartaraztea. Dogmatismo gutxi, pragmatismo asko.Eta hurrengo urteetan bete daitekeen tendentziari so eginda, aurkez daitezkeen aukerei eutsi behar zaie, beste merkatuetara jo zuten ekoizpen sarea berreskuratuz edo 4.0 bezalako estrategiek euskal industria modernizatzeko eskaintzen dituzten aukerei helduz. Egungo enpresen mantentzea ahalbidetuko duten azpiegiturez, kualifikatutako baliabideez, lurralde baldintzez eta testuinguru politiko zorrotz eta fidagarri batez doitu behar gara eta zergatik ez! Aukera berriak bildu.

Juan Pedro
Langabea

Nik uste dut saltokiak igandeetan ere irekita egon beharko luketela. Eroski edota Carrefour bezalako saltokiak irekiko egotea ere oso ondo egongo litzateke, janaria saltzen duten dendak batez ere. Igande askotan jaikitzen zarenean eskura ez duzun zer edo zer behar duzulako.

Maria Jesus
Administrazio kontularia

Oso ondo iruditzen zait saltokiak igandetan irekitzea. Bakoitzak nahi duena egin dezake, eta badago igandean erosketak egin behar dituen jendea, ez duelako beste momenturik. Denda duenak erabaki beharko luke. Saltzaileek autonomo moduan euren ardura euren gain hartu behar dute, negozio bat izatea erabaki dutelako.

_GALDERA

Zer iritzi duzu saltokiek igandetan irekitzearen inguruan?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita.

BIDEOA WEB-GUNEAN

Moli
Tubos Reunidoseko langilea

Ez lukete ireki behar. Igandean tabernetan rabak jaten igarotzeko dira, jai-eguna delako. Badituzte beste sei egun irekita egoteko. Ireki edo ez herriko saltoki guztiek elkarrekin adostu beharko lukete. Carrefourrek irekitzea gaizki iruditzen zait. Legeak baimentzen du, baina saltokien arteko kontsentsu bat egonda ez lukete ireki beharko.

Lara
Ikaslea

Nik uste dut saltzaileek eskubidea dutela haientzako denbora izateko, lanegun murriztuago bat edukitzeko. Irekitzerako orduan saltoki bakoitzak nahi duena egingo du, baina nik uste dut komertzio guztien artean adostu beharko luketela igandetan ireki edo ez ireki.

Leo
Erretiratua

Denok dugu atsedena hartzeko eskubidea. Saltoki handiek ireki dezakete, baina saltoki txikiek? Urteko 365 egunak egon behar dute lanean? Gure ardura izan beharko litzateke beharrezko gauzak aurretik erostea. Carrefourri ez litzaioke igandetan irekitzen utzi beharko. Saltoki txikiei izugarrizko kaltea eragiten die horrek.

_gutunak

Ez utzi hiltzen!

Aimar Gutierrez/Ilazki Ussia (Laudioko Gazte Asanblada)

2010ean ospatu zen azkenengo aldiz Laudioko Gazte Eguna. Datorren azaroaren 22an, lau urte geroago,berriz ere izango dira Laudioko kaleak gazteen topaleku. "Ez utzi hiltzen" lelopean Laudioko Gazte Asanbladak herriko beste hainbat gazte (ta ez hain gazte) kolektiboekin batera ekintzaz josita eguna antolatu du. Baina zer dela eta dago hilzorian Laudioko gazteria? Herriko gazteak aisialdiaren kontsumitzaile huts bihurtu gara, lokaletan giltzapetuta pasatzen dugu denbora, era begetatiboan, herriak guri eskaintzeko duenaren zain.

Pasibotasun horrekin apurtu eta Laudioko gazteria aisialdiaren parte aktibo bihurtzeko asmoarekin dator Laudioko Gazte Eguna, norbanako eta eragile desberdinen artean harreman berriak sortu eta harreman zaharrak estutu, kaleak berriro ere gazteriaren sorleku eta dantzaleku bihurtzeko asmoarekin. Herriak guri emango digunaren zain egon ordez Laudioko gazteok herriari eman ahal dioguna zer den pentsatu behar dugu.Azaroaren 22an dugu Gazte Eguna, baina ez da egun soil batean geratuko. Laudioko gazteriak taupaka jarraitzea da helburua urteko 365 egunak izan daitezen Gazte Egun! Animatu, parte hartu eta ez utzi hiltzen!

Kaskarotenea Ikastola (Ziburu)

Markel Sabater

Hizkuntza baten biziraupena ziurtatzeko hezkuntza berebizikoa omen da, eta euskara ez da salbuespena. Euskararen etsaiek badakite eta eraso anitz aurrera eraman izan dituzte. Gaur egun, tamalez, egoera ez da aldatu. Eraso horietako bat salatzera nator, Kaskarotenea Ikastolarena. Ziburuko alkateak, ikastolako kideei hura husteko beharra adierazi zien, eta hauek joateko leku dezenterik izan ezean ez zirela mugituko adierazi zioten. Alkateak epaitegietara eraman eta ikastolatik joan ezean eguneko 100euroko isuna ordaintzera behartu zituen. Hori gutxi balitz, pasaden egunean argia moztu eta 4.300€ (isuna) jasotzera joan ziren. Ikastolaren aurkako ekintzak aurrera jarraitzen dute, mehatxu egin die polizia bidaliko duela esanez baita isuna laukoiztuko diela esanez ere. Proiektua ekonomikoki ahuldu nahi dute, aski ongi dakitelako Iparraldean euskara deuseztatzeko bidea zein den, ikastolekin bukatzea. Ikastolako kideen jarrera irmoa da, baita euskaltzaleena ere. Kaskarotenea babesteko manifa deitu dute azaroaren 8an, Ziburun bertan, 16:00. Laudio Ikastolan bertara joateko busa antolatzen saiatzen ari dira.

Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugulako, han ikusiko gara!

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Erredakzioa:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.com
agenda@aiaraldea.com
agurrak@aiaraldea.com
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.com
Tlfnoa: 669 83 57 87
Web-gunea:
www.aiaraldea.com
Helbidea:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54
Tel: 688 848 152

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – 01468 Amurrio, Araba.
Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200
Fax: 946 720 092 infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Amurrio

Azaroaren 17tik 21era egongo da proiektuak baloratzeko aukera. Argazkia: aiaraldea.com

Udalaren hainbat proiektu baloratzeko aukera izango dute herritarrek

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez Ibarrola

Baliabide publikoetan kudeaketa gardena izateko hainbat ekintza egin ditu Udalak. Web orrialdean informazio ekonomikoa eta egindako kontratazioak jarri ondoren, jarduera memoria osatu du. Horrela, kulturan, hirigintzan eta parte-hartzean egin diren ekintzei buruz iritzia jasoko dute herritarren artean.

Hala, azaroak 17, 18, 19, 20 eta 21ean herriko hainbat tokitan, Udalak aukeratutako proiektu batzuk erakutsiko dira eta hobetu beharreko alderdiak jakiteko asmoz, biztanleek inprimaki baten bidez proiektu horiekiko duten atsegin maila adierazteko aukera izango dute.

Proiektuak toki hauetan egongo dira ikusgai: azaroaren 17an eta 18an kiroldegian; 19an Landakon 10:00etatik 13:00etara eta San Jose auzoan 16:30etatik 18:30etara; 20an Guk eskulturan 16:30etatik 18:30etara; eta 21ean San Anton plazan 10:00etatik 13:30etara.

Bestalde, Kiroldegian, Liburutegian, Udaletxean eta Kultur Etxean balorazioa egiteko ontziak jarriko dira azaroaren 17tik 30era. Gainera, Udalak aukeratutako proiektuak ere web gunean ikusi eta baloratu ahal izango dira.

Bilduren kritikak

Bilduko ordezkariek gogor kritikatu dute udal gobernu taldeak duen partaidetza irizpidea: "EAJk parte hartzea eta propaganda kontzeptuak nahasten ditu. Legealdian erakutsi du parte hartzea soilik era kontsultiboan ulertzen duela, eta herritarrei egindako kontsulta horietako asko ez ditu errespetatu. Horren eredua da San Antoneko estalkiaren proiektuarena, jendeari galdetu zitzaion zein zuen gogokoena eta gerora beste proiektu bat aukeratu zuten euren bulegoan itxita".

Koalizioak uste du hauteskunde atariko ekitaldia dela ekimena: "Oraingo ariketa hau beste adar jotze bat da. Hauteskundeen atarian EAJren ibilbidea saldu eta goraipatzeko baino balioko ez duen sasi -partehartze prozesua jarriko du martxan. Teknikari baten lana euren propaganda lanerako bahituta dute".

Aldundiak ez du jarrera aldatu Saratxoko saihesbidearen auzian eta plataformaren aldarrikapenak errepideetatik ezabatu ditu

ERREDAKZIOA I

Arabako Biltzar Nagusietan egindako agerpenean Alicia Ruiz de Infante Lan Publikoen diputatuak berretsi du ezinezkoa dela erabateko akordioa lortzea Saratxoko saihesbidearen harira . Erakundeak errepidearen erabiltzaileen eta Saratxoarren interesak aintzat hartuko dituela azpimarratu du. Alabaina, Aldundiak errepidearen aurkako hainbat margoketa ezabatu ditu azken asteetan.

Aldundiak errepidearen aurkako hainbat margoketa ezabatu ditu.

Zortzi zundaketa arkeologiko San Anton Armurun

ERREDAKZIOA I

San Anton plazan egingo diren lanak direla eta 8 zundaketa gauzatuko dira. Helburua obra berrien eragina aztertzea da eta erdi aroan egondako ospitalaren aztarnak bilatzea. Hondar arkeologikoak topatuz gero, Aldundiari neurriak hartzea eskatuko diote. Zundaketek 9.179 euro balio dute.

Okondo

Mendiari eta Naturari buruzko III. Jardunaldiak azaroan hasiko dira

ERREDAKZIOA I
Kaitin Allende Zaldunbide

Mendia eta Natura hizpide hartuta inauguratuko dira III. Jardunaldiak azaroaren 17an.Egitarauaz gain, Ganekogorta Mendi Klubak argazki rally-a ere antolatu du.

Azaroaren 17an, astelehenean, inaugurazio ekitaldian Mendiko Lasterketen inguruko hitzaldi-foroa eta eztabaida egongo da arratsaldeko 19:30ean eskolan bertan.

Azaroaren 18an, "Artzaintza Gorobel mendilerroan" liburuaren aurkezpena egingo dute 19:30ean Okondoko Eskolan.

Azaroaren 19an, asteazkenean, ordu eta leku berean, Amurrioko MB ilunabarra Erronka taldeak hitzaldia emango du. Ostegunean, berriz, San Romaneko Kultur Etxean "Euskal mendizaletasunaren historia eta Gorbeia lekukotzat" solasaldia egingo du Iñaki Garcia Uribek.

Datorren asteburura ere luzatuko dira jarduerak. Hilaren 21ean, esaterako, mendiarekin lotutako zinemaren txanda izango da, 19:30ean Okondoko Eskolan. Larunbatean eguerdiko 12:00etan, "Paseo txiki bat Okondoren historia ezkutua ezagutzeko, eraikinak lekukotzat hartuz" lemapean hitzaldi ibiltaria emango du Felix Mugurutza Montalbanek.

Jardunaldiei bukaera emateko "Okondoko Harana" III. Martxa Neurtua burutuko da igandean goizeko 08:30etatik aurrera. Okondoko igerilekuetan egin dute zita. Izen-ematea Ganekogorta Mendi Klubaren egoitzan egin ahal da astelehenetan 20:00etatik 21:00etara bitartean. Atari horren bitartez ere apunta liteke, www.ganekogorta.org webgunean.

_herriz herri

Laudio

Antena jartzeko obrak hasi dira. Argazkia: aiaraldea.com

Martxan jarriko da Arrañoko antena berria

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez Ibarrola

Antena berriaren kokalekuan egin beharreko lanak bukatu ditu Udalak. Lanez Abertis enpresa arduratu da. Industria sailaren baimena jaso ostean, hurrengo pausoa antena berriari energia ematea izango da.Horretarako, Iberdrolak eman beharko du oniritzia. Abertis enpresak esandakoaren arabera, hilaren 11n egingo da. Egun horretatik aurrera, antena erabiltzen duten enpresek leku aldaketa egin beharko dute.

Aipatu dutenez, aste gutxitan bermatuko da prozesu hori. Behin bukatuta, antena zaharra kentzeko lanak hasiko dira.

2010ean abiatutako prozesua

Prozesuaren azken fasea duela urte bat hasi zen, Laudioko Udalak eta Abertis enpresak sinatutako hitzarmenaren bidez. Bertan, 25 urteko iraupena aitortzen zitzaion, eta, besteak beste, Udalari leku publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko 3.000 euroko kantitate gehigarria eta operadore bakoitzeko 3.500 euro eman beharra zehazten ziren. Gainera, kokaleku berria etxebizitzetatik urrun egon beharra, antenaren gehienezko 12,5 metroko altuera eta ingurumenarekin errespetuz jokatzeko eskatzen zen.

Antena gatazkatsu gehiago

Alabaina, Laudion antenek sortzen dituzten arazoak ez dira guztiz konpondu. Latiorron dagoen antenak ez du udalak onartutako araudi berria betetzen. Ondorioz ixteko agindua eman zuen erakundeak. Helegitea aurkeztu zuen Telefonicak.

Jaietako datak aldatzeko bilera egin dute

ERREDAKZIOA I

Laudioko jaien data aldaketa aztertuko duen batzordeak astearte egin zuen bere lehen bilera. Hasteko erabiliko duten metodologia zehaztu dute. Horren arabera balizko data guztiak aztertuko dituzte; alde onak eta txarrak baloratuz. Hurrengo hilean egingo dute bigarren bilera. Momentuz hamar bat pertsona elkartu dira.

Udaleko postu guztietan ez da euskara eskatuko

ERREDAKZIOA I

EAJ, PSE-EE eta Omnia taldeek Laudioko Udaleko langile batek aurkeztutako helegitea babestu dute. Ondorioz euskara eskakizuna ez da derrigorrezkoa izango erakundearen langilea izateko. Azken udalbatzan hartu zuten erabakia aurrez bi helegite baztertu ondoren, lan poltsa baten langileek eta enpresa batek egindakoa.

Irisgarritasuna bermatzeko obra gehiago hilerrian

ERREDAKZIOA I

Hilerriko lanen bigarren fasea hasi da. Pasaleku ezberdineko maldak egokitu eta hobetuko dira eta segurtasuneko plataformadun eskailera bat ipiniko da goialdeko hobietara familiakideak hurbil daitezen. Azaldu dutenez, eraikinetan dauden ur filtrazioak konpondu eta estalkietan dauden espazio hutsak kenduko dituzte.

Urduña

Musikaren Astea: Azaroaren 14tik 23ra

Iazko kontzertu bat Argazkia: J.R.L

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren

Aurten ere Musika Astea prestatu dute herriko eragile ezberdinek. Azaroaren 14an, 15ean, 16an, 21ean, 22an eta 23an egingo dituzte ekintzak. Aurtengoa antolatzen duten hirugarren aldia da. Prestakuntza lanetan Liborio, Getxa-Goi, Fi ta fik, Santa Cecilia musika banda eta Urduñako abesbatza aritu dira, udalarekin batera. Azaroaren 14an abiatuko dute Musikaren Astea, 19:30ean Andra Mari elizan haurrentzako egingo den kontzertu didaktiko interaktibo batekin.Larunbat gaua, aldiz, kale kontzertuek girotuko dute; 21:00etan eta 23:00etan, hain zuzen ere. Ohiturari eutsiz, igandean poteo musikala egingo dute tabernetatik 13:00etatik aurrera.

Bigarren txanpa azaroaren 21ean hasiko dute, 19:30ean Urduñako musika taldeek eskainiko duten kontzertuekin. Azaroaren 22an Getxagoi eta Klarinen bandak kalejira egingo du Urduñako kaleetan zehar, eguerdian poteo musikalak hartuko diolarik lekukoa.

Arratsaldean, ordea, Foru Plaza bilakatuko dute festa eremu, 18:00etan Gazte Dja egongo baita, 18:30ean Flash movie-a eta 22:30ean Jam Sessiona. Azaroaren 23an amaituko da Musika Astea. Igande goizean Santa Cecilia Bandak kalejira bat egingo du eta jarraian Foru Plazan Metal seikotearen eta Santa Cecilia bandaren kontzertua egongo da.

Elikadura Burujabetzaren laugarren astea ospatu berri dute Urduñan. Hirian agroekologia eta elikadura subiranotasuna lantzeko eman dituzten pausuak "Regresando al futuro" dokumentalean jaso dituzte.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
PADI PROGRAMA
INPLANTEAK
3D ERRADIOGRAFIAK

ASTEBURUKO MENUAK 14 €-tik AURRERA
Hordago Jatetxea
Rotabarri 1 BARANBIO (Araba) 01450 Tel. 945 89 15 01

_herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko Adinekoen XIV. topaketa, azaroaren 27an

ERREDAKZIOA I

Datorren azaroaren 27an egingo dute Aiaraldeko Adinekoen XIV. topaketa. 9:30ean hasiko da eguna, Urduñako Alde Zaharretik egingo den bisita gidatuarekin. Gure Ahaleginak txakolindegia bisitatzeko aukera egongo da gero.

Ondoren, Amurrioko Bideko Jatetxean harrera ofiziala eta bazkaria izango dute parte hartzaileek. Dantzaldia eta animazioa egongo dira ondoren, harik eta 18:30ean topaketei amaiera eman arte.

Antolakuntzatik adierazi dute parte hartzaileen kopurua mugatua dagoela. Horregatik, topaketetan parte hartzeko dirua (22 euro) ondorengo kontu korronte honetan sartzeko eskatu dute: ES91 2095 3264 10 1090175117 (Aiarako Kuadrila). Dirua sartzerako orduan abizenak eta zein geltoki erabiliko den adierazi behar da, bus zerbitzua egongo baita. Informazio gehiago 945339122 telefonoan.

2015eko UDAL HAUTESKUNDEAK

2011an bezala, Aiaraldea Komunikazio Leihoak 2015eko hauteskundeetarako alkategai guztiak elkarrizketatzeko asmoa du.

IÑAKI CUADRA
Urduñako EAJ

"Lau urte hauetan Urduñako egoerak txarrera egin du"

"Gure programa hiritarren nahi, behar eta ezinegonak batzen saiatuko da. Ikuspegi horren kudeatzaile izan nahi dugu"

+info: Iñaki Cuadrari egindako elkarrizketa irakurgai webgunean

Orozko

Udal instalazio guztietan energia berriztagarria bultzatu eta dirua aurrezteko lehiaketa

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Orozkoko Udalak energia gastua aurreztu nahi du. Horretarako udal instalazioen energia kontsumoari lotuta dauden esparruak eskainiko dizkie enpresei kudeatu ditzaten. Urriaren 15ean iragarri zuen udalak asmoa.

10 urteko esleipena izango da eta 670.977 euroko aurrekontua izango dute enpresek. Hilero 5.591,48 euro eta urtero 67.097,76, hain zuzen. Horren truke udalak hainbat baldintza zehaztu ditu. Enpresak energia horniketa kudeatu eta bermatu beharko ditu. Horretarako kontratuak bere gain hartuko ditu ordainketak eta hornitzaileekin egin beharreko harremanak. Baina udalak orain arte eraikinak eta argiztapen-sistemak izan duten kontsumo maila hobetu nahi du. Hori dela eta, enpresa kudeatzaileak hainbat hobekuntza gauzatu beharko ditu argiak pizteko moduan, adibidez. Beroketa eta hozketa sistemen funtzionamendua ere bermatuko ditu enpresa esleituak.

Matxuraren bat gertatuko balitz udaletxean, enpresa kudeatzaileak 2 ordutan konpondu beharko du udaletxea irekita egonez gero. Itxita egongo balitz 4 ordu izango ditu enpresak. Horretaz gain, gainerako azpiegituretan egon daitezkeen ezusteen aurrean 24 orduko zerbitzua eskaini beharko du esleipena lortzen duen enpresak.

Eraginkortasuna aintzat hartuko du erakundeak ardura banatzerako orduan. Hau da, kontsumituko den elektrizitatea eta erregaia ahalik eta modu zuzenean erabili beharko da. Horretaz gain, udalak mantentze-lanak eta konponketen eskumena kontratatuko den enpresaren esku utziko ditu eta aurrekontuaren barruan egongo dira gastu horiek. Gainera, zenbait instalazioen aldaketa ere egin beharko ditu esleipendunak.

Energia berriztagarriak

Orozkoko Udalak energia berriztagarriak sustatu nahi ditu esleipenaren bitartez. Hori finantzatzeko enpresa irabazleak lortutako aurrezkiak helburu horretara bidali beharko ditu. Hau da, ez du aparteko inbertsiorik egingo.

Zentzu horretan, erakundeak ziurtatu nahi du kudeaketa berriak aurreztea lortzen duela.

Horretarako International Performance Measurement & Verification Protocol jarraituko dute eta enpresak teknikaria kontratatu beharko du.

Kontratua lortzeko enpresek bisita egin beharko dituzte Udalak dituen azpiegituretan. Derrigorrezkoa da bisita, erakundeak kontratua indarrean dagoenean kudeatzaileak baldintzak aldatzeko proposamena egitea ekidin nahi du eta.

"Euskaraz bizi nahi dut" film laburren lehiaketa

ERREDAKZIOA I Lukas Pasandin

Orozkoko Udalak "Euskaraz bizi nahi dut" film laburren lehiaketa antolatu du. 600 euroko sari bakarra banatuko da. Lehiaketan 5 minutu baino gutxiagoko iraupena duten pelikula laburrak soilik onartuko dira. Lanek argitaratu gabeak izan behar dute, beste inon (jaialdi, lehiaketa, zinema, telebista edo interneten) ikusi gabeak.

Aiara

Madariaren 900. urtemuga, ekitaldiz lepo

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa

Madariak 900 urte bete dituela ospatzeko ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte azaroan zehar. Azaroaren 22an, esaterako, bisita gidatua egingo dute Juanjo Hidalgo historialariarekin. Ondoren David Petersonek duela 900 urte Aiara nolakoa zen azalduko du. Horretaz gain, plaka bat ipiniko dute. Biharamunean, meza batek emango dio segida ospakizunari.

_sozioekonomia

Azpikontratazioei bide eman nahi die Vidralak, 40.2 milioi irabazi arren

ERREDAKZIOA I

Beira fabrikatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazitakoaren arabera, 40,2 milioi euroko irabazi garbiarekin itxi zuen Vidralak iraila; %1,5 gutxiago, 2013ko epealdi berberarekin alderatuta. Emaitzak emaitz, bi langile kaleratu ditu enpresak, horietako bat azpikontrata baten bidez merkeago kontratatzeko gero. Langileek egun bateko lanuztearekin erantzun zuten.

Tubacex-ek Italiako IBF enpresa erosi du, mundu-mailako merkatuari begira

ERREDAKZIOA I

Tubacex-ek IBF enpresa italiarraren kapitalaren %65 erosi du, eta gainontzeko %35 erosteko asmoa berretsi. Erosketa horrekin Tubacex-ek mundu mailako hodi hornitzaile nagusia bilakatzeko pausoak eman nahi ditu. Tubacexek bezala, altzairuzko hodiak egiten ditu IBFk. Italia iparraldean ditu lantegiak enpresa horrek, Txinarekin egindako merkataritza akordio bat indarrean du.

Hastear dago Laudioko Enpresa Hazitegian izena emateko epea

ERREDAKZIOA I

Laudioko Udalak Arza eraikineko enpresa hazitegian erabilera eta adjudikaziorako oinarriak onartu ditu. Foru Aldundiaren buletinean argitaratzen direnean (azaroaren 12-14ra aldera) irekiko da hazitegian izena emateko epea.

Espazioak banatzerako orduan hainbat irizpide erabiliko dira: enpresak sortutako lanpostu kopurua, bideragarritasun ekonomikoa eta enpresaren gaztetasuna.

LAN ESKAINTZAK

- **Galdaragilea.** Planoen interpretazioetan esperientzia beharrezkoa (Laudio)
- **Lore dendarako laguntzailea** (Laudio)
- **Galdaragile ofiziala** (Laudio)
- **Mantentze lan elektriko industrialean 1A ofiziala** (Laudio)

Informazio gehiago: **Amurrio Bidean**

Merkatariak eta sindikatuak batuta, igandeetan atseden hartzearen alde

Laudioko Carrefourrek igandeetan irekitzeak piztu du polemika. Sindikatuek eta merkatarien elkarteek elkarretaratzea egin zuten, eta 500 sinadura baino gehiago jaso dituzte. Saltokiaren jabeek esan dute langile bat bota beharko duela igandeetan ixten badute, baina sindikatuek hori "zentzugabekeria bat" dela adierazi dute.

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

Eztabaida berri bat piztu da Laudion azken asteetan: saltokiek igandeetan irekitzearena. Gertaera zehatz batek sortu du polemika: uda partean Laudion ireki zen Carrefour Express asteko azken egunean irekita egoteak. LAB sindikatuko kide den Agapito Vallek adierazi duenez, eskualdean halako jarrera hartzen duen lehen saltokia da. Carrefour supermerkatu katea frankizia bat da. Hala, supermerkatu kateak denda bakoitzaren jabearen esku uzten du igandeetan irekitzearen erabakia. Laudioko saltokiaren jabea Urduñakoaren jabea ere bada; baina Urduñako supermerkatuak ez du igandeetan irekitzen, sindikatuko kideek azaldu dutenez, ezta Amurrion dagoenak ere.

Hori dela eta, saltokiaren aurreanelkarretaratzea deitu zuten ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek iragan astean. Aiaraldeko komertzioen elkarteek -APILL, APYMCA eta AEME- ekimenarekin bat egin zuten. APILLeko lehendakaria den Iñaki Vivancoren hitzetan, "saltokiek igandeetan ez irekitzeko zeukaten akordioaren gainetik egin du salto Carrefourrek".

Hortaz gain, Vivancok jakinarazi du APILLetik bi gutun helarazi zizkiotela saltokiari, igandeetan ez irekitzea eskatuz. Sindikatuak ere kontaktuan jarri ziren jabearekin, baina aldeko jarrerarik jaso ez zutenez mobilizazioei ekin zioten.

Mobilizazioari erantzunez, igandeetan itxiz gero langile bat bota beharko luketeela esan zuten Laudioko Carrefourraren jabeek EL CORREOri eginiko adierazpenetan. Baina Vallek adierazi du hori "zentzugabekeria bat" dela. "Zer dute? Langile bat iganderako solik kontratatuta? Igandeetan irekitzeak komertzio txikien enplegua suntsitzen du".

Protestak protesta, igandeetan irekitzen jarraitu du Carrefour Expressek. Argazkia: aiaraldea.com

Legeak igandeetan irekitzeko eskumena ematen die saltokiei, baina sindikatu eta merkatariek ez dela zilegia azpimarratu dute.

Saltoki jabeek salatu dute Carrefourren aurkako kanpaina bat dagoela. Baina sindikatuek baieztapen hori ere gezurtatu dute; "Amurrion eta Urduñan ere badaude, eta ez dute aurkakotasunik jaso".

500 sinadura

Iragan astean eginiko elkarretaratzean sinadura bilketa jarri zuten abian, eta 500 herritar baino gehiagok sinatu zuten3 ordutan. Protestak protesta, hurrengo igandean berriz ireki zuen saltokiak. Gauzak hala, ekimen gehiago prestatuko dituztela aurreratu dute sindikatuek. "Lantegi eta saltokietan sinadurak biltzen jarraituko dugu, eta lan plangintza bat prestatuko dugu", azaldu du ELAko kide den Isabel Garciak.

Espainiako Gobernuak aurten ateratako lege berriak guztiz baimentzen du igande eta jai egunetan irekitzea. EAE mailako legeriak, aldiz, mugatu egiten du: 150 metro karratu baino gutxiago dituzten dendek nahibestetan ireki dezakete. Handiagoek, berriz, egun kopuru mugatu bat daukate.

Hala ere, denda gehienek ez dute igandetan irekitzen, ez irekitzeko "adostasun" bat dagoelako, sindikatuen esanetan. "Saltokietako langileek ere eskubidea daukate deskantsua hartzeko", azaldu zuen UGTko kide den Carmen Auñionek elkarretaratzean.

Bideoa:
Carrefourren aurkako protesta eta sindikatuen adierazpenak

Raul
Arza
UGT

_Hankamotz

Mileurismoaren utopia

Nork esango zuen duela hamarkada bat bidegabeko soldata kontsideratzen genuen milurismoa gaur egun utopia izango zela! Denbora igaro da mileurismoak gure prestakuntza aurreratua jaso zuten gazteen erreferentziazko soldata izateari utzi zionetik.

2007an UGT Euskadik "Ponte a mil" kontzientziazio kanpaina jarri zuen martxan. Soldata minimoa zifra horretara iristeko aldarrikapen bat zen. Gogoratu beharra dago Gobernuak finkatzen duen gutxiengo soldata 645,3 eurotan izoztua mantentzen dela, frantsesek dutenaren erdia baino gutxiago.

Azken hilabeteotan zenbait artikulu eta ikerketa konparatibo argitaratu dira Espainiako soldata ezberdintasun eta atzerapausoen inguruan. Europar Batasuneko herrialde aurreratuenekin konparatzen bagara, nahiko azpitik gabiltzala ikusiko dugu: soldatak Alemanian baino %40 baxuagoak dira ia, eta Frantziako edo Britainia Handikoak baino %30 txikiagoak.

Hala eta guztiz ere, beti esan ahalko da desoreka hori konpentsatzeko oso ondo ordintzen zaien zuzendariak ditugula. IBEX 35ekoak, esaterako, euren langileek baino 75 aldiz handiagoak diren kopuruakjasotzen dituzte batazbeste. Hala diote burtsan kotizatzen duten zenbait enpresen txostenek.

Inditex-en kasuan, adibidez, bere kontseilari delegatuak batazbesteko langile batek baino ia 400 aldiz gehiago kobratzen du; 8 milioi 21.000 euroren aurrean. Eta gainontzeko 34ek ere ildo bera jarraitzen dute.

_jendartea

Ugaritu egin dira espezie inbaditzaileak

Geroz eta espezie inbaditzaile gehiago sartzen ari dira Aiaraldean. Hala uste du Naturayala blogeko kide den Enrique Arberasek. Arabako Foru Aldundiak, URAk eta Aiarako Kuadrilak espezie horien aurkako neurriak hartu dituzte. Arakaldon auzolana egingo dute azaroaren 8an.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Eurena ez den ekosistema batean dauden animali zein landareei deitzen zaie "espezie inbaditzaile". Euren jatorrizko bizilekutik atera eta ekosistema berri batean bizitzera igarotzen dira, eta horrek ekosistema horien funtzionamendu eta aniztasuna kolokan jartzen du, Naturayala blogeko kidea den Xabier Iturrate hitzetan.

Ingurugiroan sortu ditzaketen kaltea dela eta, "adi" egon behar dela azaldu du Iturratek, baina gaineratu du Aiaraldean egoera ez dela "Bizkaia aldeko beste eremu batzuetan bezain larria". Hala ere, Naturayalan aritzen den Enrique Arberasek ere azpimarratu du azken urteetan kanpoko geroz eta espezie gehiago sartu direla eskualdera.

Animali ornodunen artean bisoi amerikarra da garrantzi handiena hartu duena, Arberasen hitzetan: "Larrua erabiltzeko izan zen ekarria, duela mende bat inguru, eta bisoi europarrari konpetentzia egiten dio".

Antzeko zerbait gertatzen da karramarro amerikarrarekin. Duela 40 urte agertu zen eskualdean lehenbiziko aldiz, eta nahiko ugaria da.

Floridako dordoken kasua ere esaguratsua da, Arberasen hitzetan. Dordoka espezie hori asko erosten da maskota moduan izateko, baina handitu egiten direnean badago inguruko erreketan askatzen dituen jendea. Maroñoko urtegian antzeko gauzak bat gertatu da arrainekin. "Urtegia sortu zenean Foru Aldundiak amuarrainak baino ez zituen bertan sartu", azaldu du Arberasek, "gaur egun, baina, 6 espezie gehiago daude, horietako batzuk askoz harrapariagoak". Naturayalako kidearen ustetan, kirol-arrantzaleek askatutako arrainak izan daitezke.

Landareen aurkako neurriak

Landareei dagokionez, lorazaintzan erabilia izan delako hedatu den Pampako plumeroa da ezagunena, baina ez bakarra. Azken urteetan hamaika espezie sartu dira Aiaraldera, Aiarako Kuadrilak eginiko ikerketa baten arabera. Landare horien ugaritzea ekiditeko kanpainak egin ditu Kuadrilak. URA euskal agentzia ere lanean aritu da, Basauritik Amurriora bitarteko Nerbioi ibaiaren zatitik *Fallopia Japonica* eta *Arundo donax* landareak erradikatu berri baititu.

Udaltalde21-ek, bere aldetik, hainbat landare inbaditzaile kentzeko auzolana deitu du datorren azaroaren 8rako. 9:30ean izango da zita, Usilarra parajean. Arrankudiaga-Zollon ere egin zuten auzolana, eta martxora bitartean Orozkon eta Arrankudiagan ere egiteko asmoa dago.


Bisoi amerikarra

Karramarro amerikarra

Floridako dordokak

Pampako plumeroa

Maider
Iglesias Carrasco
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

_Hankamotz

Maskotak

Nork ez du inoiz maskotarik izan? Pentsatu al duzu noizbait nondik datozen, adibidez, horren erraz eta merke erosten dituzun ur dortokak? Edota, gure ingurune naturalean askatuak izaten badira sor ditzaketen kalte ekologikoak?

Gaur egun animalia exotikoen merkataritzak diru mordoa mugitzen du. Baina dendetan ikusten dugun irudia ez dator bat errealitatearekin. Narrasti edota hegazti horietariko asko haien habitat naturaletatik indarrez atzemanak izan dira. Hori nahikoa izango ez balitz, animalia horien soilik %25 iristen da soilik bizirik dendetara. Eta zenbat hiltzen dira dendetan, behar dituzten zaintzak jasotzen ez dituztelako? Nork daki!

Baina ez hori bakarrik. Badaude beste kasu batzuk ere, ur dordokena kasu. Hauek bertan haziak dira, ez naturatik zuzenean ostuak. Ume asko dortokatxo bat erosteko apeta izan, eta urte batzuk pasa ostean, lehen dordokatxo txiki polita genuena dordoka erraldoi zikin batean bihurtzen da. Zer egin horrelako munstro batekin? Argi dago, gertueneko laku edo ibaian askatu. A zer purtzilkeria! Jakin bazenekien ur dortokak bezalako espezie exotikoak inbaditzaile egiten direla gure inguruan? Eta horren ondorioz, bertako biodibertsitatea oso kaltetua suertatzen dela?

Gaur egun arazo ekologiko larrienetariko bat espezie hauen presentzia da. Gure ondare naturala mantentzea garrantzitsua iruditzen bazaigu, birritan pentsatu beharko genuke kanpoko animalia bat erosi baino lehen.

Erabakitzeko eskubidea, Arrankudiagako herritarren eskutan

Jai giroa egon zen Arrankudiagan egun osoan zehar. Argazkia: Gartzen Garaio

ERREDAKZIOA I I Txabi Alvarado Bañares

Arrankudiaga-Zolloko 502 herritarrek erantzun zioten igandean A2 Ados Plataformak deitutako herri galdeketari. Euskal estatu baten alde lerrokatu zen gehiengoa.

Gaueko bederatziak aldera eman zuten notizia: Arrankudiagako biztanleen gehiengoa euskal estatu burujabe baten parte izatearen alde azaldu zen. Guztira 450 izan ziren A2 Ados plataformak Arrankudiaga-Zollon iragan igandean antolatu zuen herri galdeketan aldeko boza [1] eman zuten herritarrak (%89,64). Ezezko 13 boz egon ziren (%2,58), 33 zuri (%6,57) eta 6 baliogabe (%1,19).

Baina beste datu bat izan zen gailendu zena [2]: parte-hartzearena. Izan ere, Arrankudiaga-Zolloko 16 urtetik gorako herritarren %61,59 hurbildu zen hauteslekura. "Parte hartze oso altua", herrira ikuskatzaile lanetan aritzeko bertaratutako Asier Blasen esanetan. "Oso parte hartze handia egon da, kontuan hartuta jendarte mugimendu batek antolatutako galdeketa bat izan dela". Etxarrin iragan apirilean antzeko galdeketa bat egin zen, eta %42,76koa izan zen parte hartzea.

Igandeko kontsulta Kataluniakoa baino aste bat lehenago egin zen. Hala, Katalunia izan zuten gogoan antolatzaileek bozketaren emaitzen berri ematerako orduan. Han ez bezala, Arrankudiagan ez dute inolako oztoporik izan galdeketa aurrera eramateko; elkarte batek deitua egonik, legezkoa delako.

Festa giroa

Goizetik gauera arte festa giroa izan zen nagusi herrian, A2 Ados plataformak hainbat ekintza prestatuak baitzituen herriko beste hainbat elkarterekin elkarlanean. Pilota partidak, kalejirak, Porrotx pailazoaren ikuskizuna, futbol norgehiagokak... bozkatzea "festa giroan" egitea ahalbidetu zuten..

Herriko jendea soilik ez, norbanakoak zein eragile ugariren ordezkariak ere bertaratu ziren herrira. Komunikabide ugarik ere jaso zuten galdeketaren emaitza.

Jende gehiena eguerdi partean bertaratu zen bozkatzera. Bozkatzaileen artean iritzi ezberdinak entzun zitezkeen, baina guztiek baieztapen berean egiten zuten bat: "Bozkatzera goaz gure eskubidea delako". Aukera aprobetxatu behar zela ere nabarmendu zuen baten batek, "gu baino lehen egon den jende askori Arrankudiagan egotea gustatuko litzaiokeelako.

Herriko jendea soilik ez, kanpoko hainbat norbanako zein eragileren ordezkari ere bertaratu ziren zitara. Zenbait ikuskatzaile ere egon ziren, bozketaren prozesua ezarritako protokoloen arabera egiten zela bermatzen. Prozesua "gardentasunez" egin dela azaldu zuen ikuskatzaile lanetan aritutako Asier Blasek. Komunikabideak

Itziar Duandikoetxea
Arrankudiagako Alkatea (EH Bildu)

"Hazi bat baino ez dugu landatu, hazi gehiago landatzea eta ernetzea falta da"

"Beste asko bezala, nire aita kartzelan egon zen gerraostean. Uste dut bai berari eta baita sufritu egin zuten beste askori gustatuko litzaiekela gaurko egunaikustea Arrankudiagan".

Urtzi Vergara
Arrankudiagako EAJko zinegotzia

"Beste herriak ere guk emandako aurrerapausua ematera animatuko nituzke"

"Bozketaren emaitzak ikusita baloratu beharko dugu Udaletik zer erantzun ematen dugun. Gure eskubidea aurrera eraman dugu herri galdeketarekin, egun polita izan da".

Manu Gomez
Etxarri-Aranatzeko galdeketa

"Guretzat oso pozgarria izan da beste herri batek erreleboa hartu izana. Hau da bidea"

"Etxarritik jende ugari bertaratu gara, erreleboa ikuskatzeko eta bidea eta modua hau dela adierazteko. Nafarroatik Bizkairako saltoa eman izana ere berezia iruditu zaigu".

Karmele Olabarrieta
Gure Esku Dago dinamika

"Erabakitzeko eskubidea ezberdinen arteko topagune bilakatu da Arrankudiagan"

"Erabakitzeko eskubidea ezberdinen arteko topagunea bilakatzea du xede Gure Esku Dago dinamikak. Hori da Arrankudiagan ikusi dena, eta hori da hemendik aurrera erakutsi nahi duguna".

Ramon Zallo
Ikuskatzailea

"Ezarritako protokoloek oso ondo funtzionatu dute, beti hobetu daitezkeen arren"

"Protokoloek oso ondo funtzionatu dute, baina etorkizun batera beti hobetu daitezke. Parte hartze oso altua egon da, beste kasu batzuetan egon dena eta esperio daitekeena baino handiagoa".

ere bertaratu ziren zitara. ETB edota Telecincok zuzeneko konexioak egin zituzten galdeketaren berri emateko.

Hiru hilabeteko ibilbidea

Herriko Andra Mari Jaietan aurkeztu zen A2 Ados plataforma, igandean egin zen kontsulta egiteko xedearekin [3]. Iraila partean aurkeztu zuten galdeketarako galdera: "Nahi duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?".

Hiztegia: *Boz [1], boto / Gailendu [2], nagusitu / Xedearekin, helburuarekin [3]*

Galdeketaren eguneko bideo/ kronika:



Joxe Mari Agirretxe
Porrotx pailazoa

"Herriek bide propioa garatzea nahi dugu, guztien artean ostadar handi bat osatzeko"

"Pailazoa izateaz gain gurasoa ere banaiz. Gure seme-alabak ahalik eta autonomoen heztea nahi dugun moduan, munduko herri txiki zein handiek euren bide propioa egitea nahi dugu".

GALDERA

"Euskal estatu burujabe bateko herritar izan nahi duzu?"

PARTE- HARTZEA: %61,59

ALDEKO BOZAK: %89,64 (450)

KONTRAKO BOZAK: %2,58 (13)

BOTO ZURIAK: %6,57 (33)

BALIOGABEAK: %1,19 (6)

Instituzioek antolatua izan ez arren, parte-hartze handia izan zuen igandeko galdeketak. **Europako hauteskundeetan %57ak** bozkatu zuen, **Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, aldiz, %67.6k.**

"Ideologia anitzetako pertsonak gauza mankomunatu batean ados jarri dira"

JAIONE MORGAETXEBERRIA eta JOSEBA MARTIN A2 Ados plataformako kideak dira.

Jaione Morgaetxeberria eta Joseba Martin. Argazkia: aiaraldea.com

Galdeketa amaituta, zein da plataformatik egiten duzuen balorazioa?

Martin: Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin. %61eko parte hartzea lortzea oso inportantea izan da guretzat. Gure helburua beti izan da parte hartze handia egotea, eta helburu hori lortu dugula esango nuke. Baiezko eta ezezko kopurua, aldiz, ez dugu horren garrantzitsutzat hartzen.

Badago beste gauza bat herri galdeketarekin ere lortu duguna: ilusioa sortzea. Jendea oso ilusio handiarekin etorri da galdeketara. Ideologia ezberdinetako jendea, erlijio ezberdinetakoa... eta nik uste dut gauza mankomunatu batean parte hartzen ikusi dutela euren burua. Eta hori guretzat oso lorpen inportante eta positiboa izan da, zalantzarik gabe. Arrankudiaga-Zolloko herria zoriondu nahi dugu.

Morgaetxebarria: Kalean egon den giroa ere azpimarratzekoa izan da. Jaietan baino jende gehiagok hartu du parte. Nik uste dut alaitasun sentimendu horrek frogatzen duela parte hartzeko eskubidean bete-betean sinesten dugula eta eskubide hori gauzatzeko gai garela.

Herri galdeketa eta jaia gatazkarik gabe aurrera eraman ahal izan dituzuela aipatu duzue. Katalunian antzeko egoera bat ikusi ahal izango da datorren igandean?

Martin: Ez, ezezko borobila. Nik uste dut Espainiako Gobernuak helburu konkretu bat duela datorren igandeari begira: Kataluniako biztanleen parte hartzea izorratzea. Espainiako gobernuak argazki konkretu bati dio beldurra: Kataluniako 3 milioi biztanlek prozesu horretan parte hartzea eta demostratzea demokraziaren eskubide minimo hori praktikara eraman nahi dutela.

Horrek Estatu Espainiarrean sekulako beldurra sortzen du, eta horregatik hasieratik saiatu dira prozesua izorratzen. Erreferendumaren prozesua izorratzen hasi ziren, eta orain herri kontsulta izorratu nahi dute. Ez dakigu nolakoa izango den datorren igandeko argazkia, baina ziur ez dela izango Arrankudiagan bizi izan duguna.

"Alderdiek badute gertatu denaren inguruan hausnartzeko zenbait arrazoi"

"Ez dakigu nolakoa izango den igandean Katalunian emango den argazkia, baina ziur ez dela izango Arrankudiagan bizi izan duguna bezalakoa"

"Arrankudiaga-Zolloko herriari begira eman behar dugu lehenengo erantzuna. zalantzarik gabe"

Dena dela, Kataluniari keinu bat egin nahi izan diozue galdeketan.

Morgaetxeberria: Jakina, gure erreferentzia izan da. Bai Katalunia eta baita Eskozia, Etxarri edo Gure Esku Dago-ren giza katea ere. Horiei begiratuta hasi ginen galdeketan pentsatzen. Hasieran pentsatzen genuen erreferentzia horiek gugandik urrun zeudela. Baina apurka-apurka ikusi dugu gurean ere gauzatzen joan dela, eta orain ikusten dugu zer lortu dugun. Hemengo esperientzia beste herri batzuetan zabaltzeko balio izatea espero dugu.

Herrian ilusioa sortu dela aipatu duzue lehen. Zer egingo duzue ilusio hori mantendu dadin?

Martin: Galdeketaren balorazio bat egingo dugu lehenbizi. Plataforma moduan abiatutako dinamikarekin jarraituko dugu, prozesu osoa bete arte. Nik uste dut lehenengo erantzuna herriari begira eman behar dugula, zalantzarik gabe. Hau da, herri osoari zabaldu behar diogu galdeketan zer emaitzak eman diren eta plataformatik zer nolako balorazioa egiten dugun. Herritarrak zoriontzeko unea ere izango da. Gero? Ikusiko dugu. Gure artean baloratuko dugu.

Herriko bi sentsibilitate politiko handienak ados eta elkarlanean jarri zarete, Udaleko hemendik aurrerako jardunean eragina izango du horrek?

Martin: Ez dakigu. Halako plataforma baten bidez helburu mankomunatu batzuk adostea ez da erraza aurretik zubirik eraikita ez badago. Eta kasu honetan egon dira. Baina gero hori eguneroko dinamikan txertatzea, alderdien interesak medio, zailagoa da, zalantzarik gabe. Hor daude emaitzak, egunean zehar egondako giro polita... ikusiko dugu herriko beste alor batzuetan ere ematen den.

Morgaetxeberria: Abiapuntua izan daitekeela? Ba bai, orain arte ez delako denok elkarrekin egiteko planteamendurik egon. Gutxiengo adostasun bat lortu izan dugu; beste zerbaiten abiapuntua izan daiteke, beraz.

Martin: Alderdiek badute gertatu denaren inguruan eztabaidatzeko zenbait arrazoi, ziur.

_kultura

LITERATURA

"Kexaako gerlariaren abenturak kontatzen ditu liburuak. Erdi aroan girotua dago"

JOKIN CARAMESek (1950, Zuhatza) "El guerrero de Kexaa" liburua idatzi du. Urduña eta Kexaa artean bizitako abenturak kontatzen ditu istorioak. Gerrak eta maitasunak markatutako eleberria da.

ERREDAKZIOA | izar Mendiguren Cosgaya

"El guerrero de Kexaa" liburua idatzi duzu. Zer kontatzen du?

Erdi Aroko istorio bat da, 1535 urtean oinarritua. Gerlari aiarar baten bizitza kontatzen du, haren abentura. Pertsonaia asmatu egin dut. Liburua "Mandolero de la garduña" alearen jarraipena da, garai hartan lapurtu eta erailtzera dedikatzen zen sekta sekretu batena. Amurrioko liburutegian aztertutako lanetan jaso nuen horren inguruko informazioa. Gerlari baten abenturetan oinarritutako eleberria da, ez dago gertaera errealetan oinarrituta, baina lekua benetakoa eta historikoa da: Kexaa. Protagonistak Urduñan emakume bat ezagutuko du eta eta Haitzeataz maitemindu egingo da; maitasun eta gerra istorio bat da.

Zergatik aukeratu dituzu Urduña eta Kexaa?

Inguru guzti honetatik nahiko paseatzen dut. Ibilaldi horietan maitasun eta gerra istorioak askotan imajinatu ditut, horrela jaio zen liburua. Haitzearen familiak ez du nahiko gerlari batekin ibiltzerik, eta protagonistak bailaratik alde egitea erabakiko du, neskaren aitak enboskada bat jarriko baitio. Orduan Flandesera joatea erabakiko du. Bertan urte batzuk emango ditu eta bueltan mendekua hartuko dio. Ondorioz, Haitzea Kexaako monasterioan itxiko da.

Bigarren liburua dela diozu, istorioak aurrekoarekin loturarik ba al du?

Bai, jarraipena da. Lehenengo liburuan protagonista bandolero bat da, bigarrenekoaren (oraingoa) aita. Neguan hirugarren alea idazteko asmoa dut, aspalditik bainuen trilogia egitearen ideia buruan. Niretzako idaztea beharra da, lotsagatik sekula ez dut lehenago publiko egin. Poesia ere idatzi izan dut, baina ez dut inoiz editatu. Amurrioko kultur etxean literatur tailerra egin nuen eta bertan erabaki nuen aurrez idatzitakoa argitaratzea. Nire taktika hau da: 4-5 liburu irakurtzen ditut, liburutegian uzten ditut, paseatzean imajinatu eta gauean idatzi. Informazioa, imajinazioa eta erredakzioa, hori da nire hiruko formula.

> "Aiaraldetik pasiatzen maitasun eta gerra istorioak askotan imajinatu ditut. Horrela jaio zen liburua"

> "Negu honetan idatziko dut trilogiaren hirugarren liburua"

Hirugarren liburua iritsiko al da?

Negu honetan idatziko dut. "La fobia del cielo" deituko da. Ea maitagarriren batek Haitzearekin zer gertatzen den argitzen didan, Kexaako monastegiaren istorioak jarraitu behar du eta! Amurrioko Aldaiturriagako aldapan gaztelu tankerako dorre bat egon zen, bertan oinarrituko da.

Fantasia, maitasuna eta gerrak garrantzia handia dute liburuan. Hiru osagai horiek beharrezkoak al ditu bizitzak?

Noski baietz. Maitasun gabe zaila da fantasiak izatea. Fantasia pertsona bakoitzarena da, propioa, baina egunerokoak eta lanak ez zidan orain arte ikusten uzten.

Niretzako literatura guztia da, beti izan da, 14-15 urtetatik. On kixote liburuak asko eragin zidan, hirutan irakurri nuen gaztetan. Liburuak Aiararentzako egin ditut, ingurukoentzako. 50 ale bakarrik atera ditut, hori da probarik argiena. Abenduan argitaletxeetara joko dut, interesatzen bazaie zabaldu dezaten.

Patxi
Iturregi
IDAZLEA

_Kamerinoa

Egunkariaren afera

Bukatu da amesgaiztoa, bukatu da azken auzipetuen sufrikarioa eta bukatu da inoiz euskaldunoi egin diguten irainik lazgarrienetariko bat. Jakina denez, urriaren 14an Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak Egunkariaren auzi ekonomikoa itxi zuen, Donostiako Zigor Epaitegiko epaile baten aurreko erabakia berretsita. Zorionak guztioi!

Poza da aurreneko sentsazioa, lasaitu ederra, gainetik zama handi bat kendu izan bagenu bezala. Baina bitartean hamaika urte igaro dira prozesua abiatu zenetik, eta zaila da gertaera guztien nondik-norakoen laburpena egitea. Hona hemen dena hitz bitan: 2003ko otsailaren 20ko polizia-operazio mingarria, atxiloketak, espetxeratzeak, tortura salaketak, mobilizazioak, absoluzioak eta aipatutako urriaren 14ko azken artxibatze zoriontsu hori.

Nik, jazoera zurrunbilo horretatik hiru oroitzapen hunkigarri gordetzen ditut bizi-bizi, Martxelo Otamendiren malkoak, barneraino sartu zitzaigun kultura-umezurztasun sentimendua, eta, azkenik, euskaltzaleok emandako erantzun paregabea. Garai hartako galera-sentipenaren tamaina hobeto uler dezazuen, kontatuko dizuet nola Euskaltegian Egunkariaren ale zahar guztiak artxibatzen hasi ginen, larri, aurrerantzean beste kazetarik izango ez genuelakoan.

Ulertzekoa denez, orain poza da nagusi. Baina erne. Amesgaiztoa bukatu bada ere, bidegabekeria ez da oraindik konpondu eta mehatxuak bere horretan dirau, zeren ederki baitakigu edozein makalaldi profitatuko dutela gure kultura eta hizkuntza berriro ere kolokan jartzeko.

_kultura

_kultur leihoa

Lander Arteaga
ZINEMA

Lasa eta Zabala

Zuzendaria: Pablo Malo
Aktoreak: Unax Ugalde, Francesc Orella, Oriol Vila...

1983ko urriak 15. Josean Lasa eta Joxi Zabala Frantzian desagertzen dira. Familien eta euren abokatuen, etengabeko, lana estatu espainiarraren alde ilunena argira atera zuen. Gertakizun hunkigarri hauen kontakizuna da Lasa eta Zabala. Bikaina den lehenengo ordu erdi batekin, Pablo Malo zuzendariak,thriller judizial interesgarri batean murgilduko gaitu. Iñigo Iruin abokatuaren lana oinarri gisa hartuz, Lasa eta Zabalaren desagerketen epaia azalduz eta, modu berean, euren bahiketa, tortura eta hilketen xehetasunak erakutsiz.

Epaia martxan jartzen den unetik, filmak erritmo ezegonkor batekin aurrera jotzen badu ere, ezinbestekoa den lan baten aurrean gaude. Gure herria minez bete zuen gertaera tamalgarri honen kronika bat ezinbestekoa bai zen jadanik. Argazki lana ere bikaina izanik, zer esan Unax Ugalde aktorearen lanaren inguruan! Ugaldek, bere ibilbidean zehar egindako paperetatik aldenduz, lan zorrotz bat egitea lortzen du; Iruinen indarrak eta ahultasunak gureak eginez.

Lasa eta Zabala, ikusi beharreko pelikula interesgarri bezain hunkigarri bat. **Filma datorren azaroan 9an eta 10ean proiektatuko da Amurrioko Antzokian.**

Aiaraldea Irratia, 3. denboraldian

Abian da Aiaraldea Irratiaren 3. denboraldia. RZ, Euskrats, Harian Magazina, Klioren basoa eta Aiszirimola irratsaioek osatzen dute parrilla, eta www.aiaraldea.com/irratia edo Uhinak Irratiaren bidez 96.5 FMan entzun daitezke.

Euskrats:
Kurtsoko lehen irratsaioa

M-INUS disketxeak izan duen bilakaera errepasatuaz eman diote hasiera kurtsoari musika elektronikoaren saioan.

Gernikako Arbolaren kimuetatik 12 zuhaitz hazi dira Aiaraldean

Alfredo Pereiro laudioarrak urteak daramatza Gernikako Arbolaren kimuetatik hazitako zuhaitzen zerrenda osatzen. Aiaraldeko 12 zuhaitz zerrendatu ditu.

Udaletxearen alboan dago Arakaldoko zuhaitza. Argazkia: diario.es

ERREDAKZIOA I
Izar Mendiguren Cosgaya

Gernikako Arbolaren kimuetatik eratorritako zuhaitzak eskualdeko 10 herritan topa daitezke. Hala azaldu du Alfredo Pereiro laudioarrak, nahiz eta horietako batzuk desagertuta dauden. Zaletasunagatik aztertu ditu noiz, zergatik eta non kokatu zituzten. "Zuhaitz sakratuaren" kimuak nola Euskal Herrian hala nazioartean daude banatuta: Argentinan, Kolobian, Mexikon, Erroman, Frantzian...

Alfredo Pereiroren arabera, Laudiokoa Lamuza parkean kokatuta dago: "Dokumentua desagertuta dago, baina 80.hamarkadako amaieran landatu zela esango nuke". Aiaran, berriz, hiru zuhaitz kontatu ditu. Arespalditzakoa udaletxe ondoan dago. Luiaondon, berriz, Malato Zuhaitzaren ordezkoa da: "Ez dago Gernikako Arbola dela frogatzen duen dokumentu ofizialik, baina 2006n Leopoldo Barreda PPko parlamentariak zuhaitz singular izendatzeko eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzari".

Arakaldoko eliza eta udaletxearen artean beste bat dagoela uste du: "Ez dut agiririk aurkitu, baia alkateak existitzen dela ziurtatu dit".

Arrankudiagara ere iritsi da Gernikako arbola, batzokiaren eta eskolaren artean ikus daiteke.

Arrasto asko, baina proba gutxi

Aiaraldeko herri guztietako kasua, baina, ez da bera.

Amurriori dagokionez zalantzak ditu Pereirok: "Gernikako Arbola izeneko kale bat dago, kasualitatea ote? Bertan bi haritz daude, baina ofizialki inork ezin izan dit Gernikakoak direnik baieztatu". Okondon, egungo udaletxearen aurrean Gernikako Arbolaren seme-alabaren bat zegoela garbi du: "Plaka bat zuen, baina nik ez dut ezagutzeko aukerarik izan". Urduñako Antiguako Amaren santutegian ere topatu du arrastoa. Orozkoko museo etnografikoaren atzean dagoen plazan ere Gernikako Arbolaren ondorengo bat dago. Hala baieztatu du Iñaki Garcia Oribe ikerlariak. Artziniega inguruetara ere hedatu da zuhaitz ospetsua Pereiroren esanetan, udaletxearen parean, zehazki: "Artziniegar batek egindako donazioa izan zen, nahiz eta ez duen akreditazio ofizialik. Tuterako Erreteseko kontzejuan bizi da, eta bere etxean beste bat duela baieztatu dit".

Sofia Erreginak emango dio Jose Maria Pinto margolariari BMWren domina

ERREDAKZIOA I
Unai Gotxi Kastrexana

Jose Maria Pinto margolari artziniegarrak BMW taldeak eskaintzen dituen sarien ohorezko domina eskuratu du. Sarien banaketarekin kultur arloan eta zehazki pinturan aritzen diren artistak sustatzea dute helburu.

Hiru gazte saritu dituzte eta aurtengo lehen saria, 29 urteko gazte bati eman diote. 800 bat parte hartzailee aurkeztu dira. Beste 10 margolariri ohorezko domina emango diete. Horien artean dago Pinto. Sofia Espainiako erregina ohiak banatuko ditu sariak azaroaren 6an Madrilgo Teatro Realen. Duela hamabost urte Alejandro Quincoces margolari artziniegarrari BMW taldeko kultur arloko lehen saria eman zioten.

J.M. Etxebarria Ayesta
Irakaslea

_Lurpetik

Txalupa parkean

Antzina, Arratiako arantzazuarrak harrizko zubia zeukaten eginda eleizara bidean. Baina Arratien erreka handi-handi zetorren bakoitzean, harrizko zubi horri apurtu egiten zion alde bata, bestea ez, arta handi bat dagoelako. Eta, ba, berriro beharlekua zubiginen, hurrengo uriolak noz etorriko bildurkilik.

Arantzazuarrak gogait eginda zeuden zubigintzarekin eta egun baten Gorbeiara, Itzinara joan omen ziren, han Supelegorren bizi ziren jentilei laguntza eske.

-Zer deta-eta ba hemendik?- jentilok.

- Ba, aiko, ezin dugu gehiago uriolekin, uriola bakoitzean, txirran eroaten digu Arantzazuko arku eta guztizko zubi zati ederra, eta atzera konpondu behar, gainetik pasatuko bagara.

-Bueno ba, ez ezazue odol txarrik egin, belea beltzago ez da egingo- eta. Zoazte zeuonera guk zeozer ideatu edo asmatu bitartean, zuok ekin harriak pilatze eta zubigintzari.

Handik egun batzuetara, Supelegorreko jentilak, hartu Itzinako hazduitik harritzar bat eta Arantzazuko zubi ertzean jarri zuten, zeinda parapeto legez. eta santo erremedio, jentilen laguntzari esker. Arantzazuarrak orduan, eskertzeko, ardi-errebainu bat opatu ei zien Itzinako jentiloi, egindako mesedeagaitik, eta denak pozik! Hoba ez!

URDUÑAKO UDALA:
AUTOKARABANENTZAKO PARKINGA SORTZEKO IDEIA LEHIAKETA

NON? Urduñako zezen-plazaren aldameneko zelaian.
NORI ZUZENDUA DAGO? Norbanako, elkarte edo enpreseei.
ZER ESKAINTZEN DA?
- Ekimena garatzeko zelaia eta Gurutze Gorriaren eraikina erabiltzeko aukera.
- Proiektu irabazlearentzat bideragarritasun azterketa egiteko aholkularitza zerbitzua eta egitasmoa abiatzeko prozesuan laguntza.

PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA: Azaroak 25

Informazio gehiago 945383003 telefonoan edo **www.urduna.com** webgunean

_kirola

SOKATIRA

Emakumeek hartu dute sokari eusteko lekukoa Aiaraldean

80-90. hamarkadetan Aiaraldean nahiko hedatua zegoen sokatira. Amurrio, Laudio eta Artziniegan hainbat talde zeuden. Gaur egun, baina, Artziniegakoa da geratzen den bakarra. Errelebo falta, kirolaren gogortasuna eta laguntza eza dira sokari tiratzeari uzteko arrazoietako batzuk.

ERREDAKZIOA I Aimar Gutierrez

Sokatirak oihartzun handia izan du Aiaraldean urteetan zehar, talde ezagun asko ibili dira lehian. Baina talde zahar horien atzetik badira lekukoa heldu eta sokatiraren munduan aurrera egiten duten talde berriak, horien adibide da orain dela lau urte baino gehiago sortutako Artziniegako sokatira taldea. Hein batean sokatiraren, eta herri kirolen munduan ezarritakoarekin apurtzera etorri da talde Artziniegarra: nahiko talde berria izateaz gain emakumeek bakarrik osatzen dute, urte luzez mundu honetan gizonezkoak nagusitu diren bitartean.

Artziniegako jaietan antolatzen diren herri kirol txapelketa batera animatu zen koadrila batek sortu zuen sokatira taldea, duela lau urte.

Sokatira kirol ezaguna da Artziniegan. Aspaldian bazen mutilezkoen talde bat eta bertako bi kide ohik sokatira txapelketa herrikoiak antolatzen zituzten Artziniegako jaietan. Jaietako txapelketa hauetako batean sortu zen gaur egungo sokatira taldea.

Hasiera zaila izan zen. Artziniegako mutilezkoen talde zaharreko bi kide zituzten entrenatzaile lanetan; euren gain urteetako esperientzia bazuten ere ez zeuden lan horretara ohituta denboraren poderioz sokatira ere aldatzen joan delako: lehen indarra zen inportanteena, orain teknikak pisu handia hartu du. Taldekideen hitzetan hasiera desastre hutsa izan zen baina ez zuten amore eman. Astean zehar 2 aldiz entrenatzeaz gain Gasteizeko sokatira talde baten laguntza jaso zuten, hiruzpalau entrenamendu egin zituzten bertan. Oraindik asko daukate hobetzeko baina gogotsu doaz aurrera.

Azkenengo denboraldi honetarako hilabete daramate entrenatzen, 4x4 txapelketa hastear baitago. Sokatiran tiradak pisuaren arabera egiten dituzte eta euren kategorian 260 kilotan dago muga. Artziniegako neskek pisuan ikusten dute trabarik handiena, eurak topea baino 30 kilo beherago daude eta hau oso faktore baldintzagarria da. Urtarrilean sokatiran dagoen bigarren diziplinaren txapelketari ekingo diote, hots, 8x8 kategoriari. Euskal Herri mailan lehiatzen dira. Mutilen multzoan talde gehiago badaude ere nesken multzoan sei talde daude, ez da zifra altua baina bada zerbait.

Errelebo falta

Lagun artean sortu zen Artziniegako sokatira taldea eta horrek erreleboen momentua heltzen denean arazoak ekar ditzakeela komentatzen dute, antzina eskualdeko beste sokatira talde batzuetan gertatu bezala. Hala ere kirolaren atzetik badago eguneroko bizitza bat: lana, aisialdia... Sokatira horrekin tartekatzea ez da lan makala eta horretan dabiltza orain, egunerokotasuneko kontuak direla medio entrenatzen zortzi neska hasi baziren ere orain lau bat dira erregulartasunez bertaratzen direnak. Lau urte hauetan, hasierako taldeari bi kide berri batu zaizkio, bi mutilekin ere bat egin dute eta gizonezkoen talde bat sortzeko ahaleginetan daude orain Artziniegan.

Pixkanaka pixkanaka bada ere ilusioz eta gogotsu doa sokatira Artziniegan.

Sokatik tiraka, iraganera



Arrizkuzubi taldea Luiaondon 1985ean. Argazkia: Egin

Aspaldian izan zenarekin alderatuta ezer gutxi da gaur egun sokatira Aiaraldean. 80 eta 90. hamarkaden bitartean loraldia bizi izan zuen kirol honek Aiaraldean 15 bat sokatira talde ezberdin batuz.

Garai horren adibide da Laudioko Arrizkuzubi talde sonatua. Artziniegako nesken taldea bezala lagun artean eta jai giroan sortu zen Arrizkuzubi taldea Larrazabaleko gazteen eskutik. 1982ean hasi ziren entrenatzen San Joaneko bolatokian, horretarako Aretan egondako sokatira taldeko kide izandakoen laguntza jaso zuten. 1986ean klubaren estatutuak ezarri eta txapelketetan parte hartzen hasi ziren: Arabako txapelketa, Euskadiko txapelketa...

1990ean joan ziren lehendabizikoz munduko txapelketa batera, Holandara hain zuzen. Eskarmentatuta bueltatu ziren euskal talde asko lehenengo munduko txapelketa horietatik; ordu arte Euskal Herrian praktikatzen zen sokatira estilo aldatu egin zen kautxuzko pistak erabiliz esaterako. Guztira zazpi aldiz joan ziren Arrizkuzubiko taldekideak munduko frogan parte hartzera bertan emaitza onik lortu ez bazuten ere. 90. hamarkadan Laudion sortu zen nesken taldeak aldiz bigarren postua lortu zen Getxon jokatutako mundialean.

2009. urtera arte jarraitu zuen aurrera Arrizkuzubi taldeak. Diru-laguntzarik ez zuten jasotzen eta dena euren poltsikotik ordaindu behar izan zuten. denborarekin jendea erretzen joan zen eta ez zen belaunaldi errelebo bat gauzatu. Taldekideen hitzetan, Laudio bezalako herri handi batean kirol eskaintza zabala da eta sokatira agian ez zen gauzarik erakargarriena.

2011an gutxi gora behera jende gazte berriarekin taldea berriro aterako zela zirudien, baina laster utzi zioten entrenatzeari eta ez ziren txapelketetara aurkeztera heldu.

Koldo
Iriarte
PILOTARIA

_Helmugari so

Titinen erretiroa

Urtero erretiratzen dira pilotariak. Batzuk lesioen ondorioz, beste batzuk enpresek ez dietelako kontratua berritzen.

Duela gutxi, Augusto Ibañez Sacristán, TITIN III -ak bere azken partidua jolastu zuen Logroñoko Adarraga pilotalekuan, 45 urtekin. Marka haundia berea. Nola da posible adin horrekin estelarrak jokatzea? Harrigarria benetan, esango nuke nik.

Bere joko klase errioxarra oso gustokoa dute pilotazale gehienak, beti erasoan jokatzen bukatu du bere ibilbidea frontoietan. Azken urteetan ere!

43 urterekin binakako txapeldun geratu zenean txapela kentzeko moduko momentuan zegoen. Ehun partidu baino gehiago jokatzera iritsi da urte batean. Ez zuen inoiz lesio larririk izan. Bi partida jarraian, hiru eta lau baita ere.

Xabier Euzkitzek esan zuen behin TITIN III. euskal telebistan erderaz gehien hitz egin duena izan dela. Hori ere marka.

Faltan botako dugu, ostiral gauetan eta igande arratsaldeetan TITINen partidu pilo ikusi ditugunok! Bere bolea, gantxoa, polemika, eta abarrak.

Inork ez du esango, pilotari oso polita, on eta espektakularra izan dela baina bakoitzak bere iritzia edukiko du. Nik badaukat nirea. Espero dut bizitza hontan bera bezain ona den beste pilotari bat ikustea!

_kirola

GIMNASIA ERRITMIKOA:

Aresketa klubeko kadete base taldea Espainiako txapelketara



Aresketa klubeko kadete base taldeak Euskadiko Txapelketan hirugarren postua lortu eta Espainiako txapelketarako sailkatu da. Lehiaketa Castellonen izango da azaroaren 20tik 23ra bitartean. Lehenago, baina, Euskalgym lehiaketa-ikuskizunean arituko dira azaroaren 8an eta 9an.

TXIRRINDULARITZA:

Aida Nuño eta Aitor Fernandez, garaile Laudioko IV. Ziklokross proban

Aida Nuñok eta Aitor Fernandezek lortu zituzten lehenengo postua Laudioko IV. Ziklokross proban iragan asteburuan.

Polemika egon zen Ñunoren lasterketarekin, bera eta Rocio Gamonal ia ia batera iritsi baitziren helmugara azken sprinta egin ostean. Epaileek denbora behar izan zuten Nuñoren garaipena baieztatzeko.

Lasterketa hasi baino lehen elkarretaratzea egin zen emakumezko parte hartzaileen izenean. Txirrindularen Federaziotik jasotzen diren sariak emakumezko eta gizonezkoentzako berdinak izatea aldarrikatu zuten .

Argazkia: @DaniBici

MENDI LASTERKETA

"Euskal Kopako denboraldia bukatuta lasaiago nago"

ZURIÑE FRUTOS (Artziniega, 1986) korrikalaria da. Areto futbolean hasi eta mendi lasterketak egiten bukatu du. Euskal Kopan hirugarren postua lortu du.

ERREDAKZIOA I
Izar Mendiguren Cosgaya

Gorbeia Suzien lasterketa ospetsuan hirugarren sailkatu zinen. Pozik,ezta?

Ez nintzen Gorbeiako proban hirugarrena izan, Euskal Kopakoa baizik. Azken lasterketa izan zen Gorbeia Suzienekoa. Guztira 6 proba izan dira, horregatik zapaldu nuen podiuma Gorbeian. Hala ere, lasterketa txarra egin nuen, ez nengoen ondo, ahalik eta hoberen bukatu nituen 32 kilometroak.

Euskal kopan parte hartzen duzun aurreneko aldia da, zelan daramazu?

Lehen proba apirilean izan zen, Urnietan. Gero etorri ziren Lakuntza, Bidarrai, Zumarraga, Olazti eta Gorbeia. Probintzia denetatik ibili naiz korrika. Kilometro gutxien zituen karrerak 21 izan zituen, eta gehienak 61.

Gutxi gora behera bi ordu behar dira horretarako, behintzat. Euskal Kopan eta mendi lasterketan lehengo urtea dut, orain arte errepidean ibiltzen nintzen korrika.

Lasterketak denbora laburrean egiteko entrenamendu luzeak egin beharko dira, edo?

Bai, zerbait nahi baduzu behintzat! Hasieran lasai hasi ninten, frogatzeko helburuarekin. Hobetzeko orduak sartu behar dira, igandeetan entrenatzea barne, eta horretarako gauza batzuk utzi behar dituzu. Aiaraldean gainera horretarako malda politak daude.

Ni Artziniegatik eta Urduñako mendizerratik ibiltzen naiz, mendi gogorrak entrenatzeko ondo datorkigu.

Zein da zure buruari jarri diozun erronka?

Euskal Kopako denboraldia bukatu da. Orain lasai nago. Gorputzak deskantsua behar du. Martxoa-apirila aldean Euskal Kopa eta Espainiakoa hasiko dira. Agian datorren urtean hori frogatuko dut, "Ertza mendi kluba-Miribillako otsoak" klubean sartuta bainago eta karreretara norbaitekin joatea hobea da beti! Euskal Kopako oraingo irabazlea, Sandra Sevillano, nire klubekoa eta laguna da, eta agian harekin animatuko naiz Espainiakora!

ELKARGOKO BAZKIDEENTZAKO
ESKAINTZAK
AIARALDEA HERRI ELKARGOA
PERTSONAK
SALTOKIAK
ELKAR·EKIN TOKIKO MERKATARITZA EUSKARAZ SUSTATU

DISKA GOGORRA 1 TB
HDD transcend 2.5" USB 3.0
67 € %25
EUSKO PC Informatika zerbitzuak
Zumalakarregi etorbidea 47 LAUDIO
Tel. 946087310

DONUTXAK
ESKUZ EGINDAKO JANTZIAK
25.5 € %15
GOROBI Eskuz egindako diseinuak
ARRANKUDIAGA . Tel. 619 23 95 80
gorobi.blogspot.com

ILE LUZAPENAK
ILE NATURALAREKIN
%20
ENEAN ILEPAINDEGIA
Baia kalea 6, atzekaldea. LAUDIO
Tel. 94 643 52 60

FOREX KOADROA
pertsonalizatua 50x70cm, 5mm
%30 27 €
ADI ZENTRO GRAFIKOA
Maskuribai Kalea, 10, AMURRIO,
Araba. Tel. 945 89 08 46

AUTO KONPONKETAK
Errebisioak, konponketak...
%15
ERRIGORA SASKIA
Emberako produktuez osatutako saskia
25 € %50
HYUNDAY-ESKA Auto-salmenta eta konponketak
Gardea Kalea, 4, 01400 · LAUDIO, Araba
Tel. 946 72 84 46

ELKAR·GOKO BAZKIDE IZATEAK ONURAK DITU
IZAN ZAITEZ ZU ERE BAZKIDE

BATU ZURE ENERGIA EUSKARAREN ELKARGOAN
DENBORA EMAN DIRUA EMAN

DEI GAITZAZU ETA AZALDUKO DIZUGU NOLA EGIN BAZKIDE: 688 647 942
EDO EGIN EZAZU ZUK WEB-GUNE HONETAN:
elkargoa.aiaraldea.com

Aiaraldea Herri Elkargoko bazkide izateko diru edo denbora ekarpen bat egin duten pertsonek gorago zehazten diren saltoki horietako eskaintzak probestu ahal izango dituzte.

Nola eskuratu eskaintza
Eskaintza iragarri duen saltokira joan eta Elkargoko bazkide txartela erakustea nahikoa izango da zehaztutako produktu edo zerbitzuan deskontua jasotzeko.

Epea
Hemen argitaratutako eskaintzak probesteko epea Azaroaren 19an amaituko da. Hurrengo hamabostaldian, egunkariaren argitaratzearekin batera eskaintza berriak izango dira eskuragarri.

Eskaintzen inguruko informazio zehatzagoa topatuko duzu elkargoa.aiaraldea.com web-gunean .

AIARALDEA HERRI ELKARGOA

_Herriko plaza

_agurrak

BIDALI ZUREA! **Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera azaroaren 14a baino lehen.**

Iare

Zorionak Iare!!! Ondo pasa zure 7. urtebetetzean.
Maite zaitugu!
Zure familia

Jon

19 urte atzean; musikaz beteriko zenbat egun aurretik?
Zorionak!!
(Bihotz Bakartien Kluba)

Koldo

Zorionak Koldo! 19ak motxilan sartu ta jarraitzazu gailurrak soinean metatzen!
(Bihotz Bakartien Kluba)

Ainhoa

Zorionak borrokalari! Hurrengo parrandan ikusiko gara ;) Ta, badakizu, ukondoak ez du barkatuko!!
Ukondo liante kuadrilla

Presi, Markel, Maia

Heldu da zuen mende laurdena ospatzeko eguna! Jarrai ezazue beti bezala alai! Hiru muxu handi!
Koadrilla

_#sexgatik (:><:)

Sex zer? Sexgatik? (Irati)

Sexualitateari buruzko zalantzak dituzu? Zalantza horiek argitu nahi? Koadrilan komentatutako gai baten inguruan beste iritzi bat jaso nahi? Espazio hau edozein kuriositate nahiz kezka asetzeko nahia duen adin guztietako pertsonei zuzenduta dago. Arduratzen zaituen zerbait badago, edota gaiaren inguruko informazioa nahi baduzu zure zalantzak argitzeko espazioa duzu hau. Aurreiritzi zein mitoei aurre egiteko aukera ezin hobea, modu komunitarioan ikasteko eta informazioa konpartitzeko espazioa.

Sexu bizipen positiboek norbanakoaren ongizatean eta komunitatearen osasunean mesede egiten dute. Ez dagoelako sexualitate bakarra. Pertsona guztiak bakarrak eta bereziak garelako, sentitzeko, adierazteko eta bizitzeko modu propioa dugu. Ez dago sexualitate unibertsalik, zuri balio dizunak besteari ez diolako balio. Hori baita bizitza beraren esentzia. Ikuspegi ezberdina, errespetutik abiatuta, hurbila, irekia, epaiketatik at eta estereotiporik gabekoa jaso nahi baduzu zeren zain zaude?

Ez galdu aukera, gure helbidera idatzi edo bideo bat bidali. Koadrilan hitz egindako gaiak, koadrilan hitz egitea kostatzen zaizkizun gaiak, galdera anonimoak, zalantzak, kuriositateak nahi beste.

(Bidali zure galdera sexgatik@aiaraldea.com helbidera!) **Julene Onaindia Garcia**

_denborapasak



EZKER-ESKUIN

1. Gehienetan barazki gordinekin, eta batzuetan fruitu lehor, fruta eta bestelako janariekin prestatzen den janaria, gatz, olio eta ozpinarekin maneatu ohi dena. 2. Automobilak, autoak. 3. Alokairua. Zintzoa. 4. Militarren kolorea duzu; ez muga. Ugaztun karraskari, belarri-luze eta isats-motz, atzeko hankak aurrekoak baino luzeagoak, jateko ona. 5. Ugaztunen larruazalean hazten diren hari-formako luzakinak. Behialako piraten gustuko edari bizi. 6. Poesia mota. Adar. 7. Lehenengo pertsona. Toka, dio. Boroaren ikur kimikoa. 8. Daramat, baina bizkaitarren esango luketen moduan. Begira. 9. Ekintza okerra.

GOITIK-BEHERA

1. Ebaki edo zauri batek osatu ondoren uzten duen seinale edo orbain. 2. Jesukristok hil aurretik pairatu zituen neke eta oinazeen segidak. 3. Zerbait hartu eta horren ordez beste zerbait emateko ekintza eta ondorioa. Musika nota, eskalan bigarrena. 4. Une honetan gerra zibila bizi duen errepublika arabiarra. Kitatzeke dago. 5. Hainbat apaiz eta erlijiosori ematen zaion trataera, izen-deituren ondoan ezartzen dena. Portuko nasak. 6. Berrogeita hamaika balio du zenbaki erromatarren arabera. Bigarren bokala. Pilotak lurraren edo hormaren kontra jotzean egiten duen jauzi edo punpa. 7. Lantzen diren lur-zati mugatuak. Kon-tsonantea. 8. Musika tresna. Musika nota, eskalan zazpigarrena. 9. Araknido bizkarroi. Oihanetan bizi den sugetzarra.

ERREZA

		8		5	3			7
	1					9		
		2		8	1	3	4	
		3		9	5			
2		7		3			1	9
	6	1		4	7			
		9		1				
		5			6		9	1
1	2				9		8	

ZAILA

	3		8	7				4
8				3				
			6				5	
1				2	4	5		7
					8			2
6	4		5					3
	8	5						
4					3	8		
	2	6	7	8		9	4	

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.com/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18
Baratzeko piperrak amaitu dira? Ez kezkatu! " Udazkuda" berri honekin abenduak 31an menu aldaketa egin beharko dugu: tomate entsalada, piperrada ta banilla izozkia! Hauek bai gabon modernoak! Erne ibili, hamabi gereziak bukaerarako direla!

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20
Triste zabiltza azkenaldi honetan. Adituak diote sufrimendua lehiatzeko umorea beharrezkoa dela. Ariketa ezberdinak egin zure barruak hobeto ezagutzeko. Ispilu aurrean barre egin eta zure aurpegiko keinu guztietan arreta jarri. Bai, zeu zara.

HERENSUGE
03.21-04.20
Plazan umearekin jolasten egon ordez mugikorra begira egoten zara beti. Whatssap-etik idazteagatik kobratuko bagenu, aberats izango ginateke. Behera begiratzeko ohitura aldatu aurrean daukazunaz gozatzeko!

LAMIA
04.21 - 05.20
Txarribodarako pizti bila? Urdaiazpiko faltaren aurrean inguruko panorama begiratu ezazu. Kalitatearen bila jarraituz gero san martinak helduko zaizkizu! Okel puska bakoitzak zapore ezberdina du, mugi zaitez!

BASAJAUN
05.21 - 06.20
Zu zara zure buruaren etsai bakarra. Ideia onak dituzu, bikainak. Ez izan beldur gertatu daitekeenari onena heltzear baitago. Zure barnean dagoen munstro hori garaitzeko eguna heldu zaizu, ausarta izan eta behe eta goiak irentsi!

BASANDERE
06.21 - 07.20
Zahar ikusten duzu zure burua. Zelulak zahartzen dira, bai. Baina zure izaera da zahartu behar ez dena. Gaztetasuna zure aukera da, sinistu, pertsona bera zara, damua irakaspen bihurtu eta gaztaro berri hau gehiago gozatzeko erabili.

GAUEKOAK
07.21 - 08.21
Lana nahi, baina beti jai! Kurrikulumak ez direla berez egiten! Zortea ez da existitzen, denbora kontua da! denbora soberan daukazunez aitzikirik ez dago nahi duzunagatik borrokatzeko. Esnatu!

JENTILAK
08.22 - 09.22
Ezberdintasuna norberaren aukera anitzetan oinarritzen da, ezberdina izan zaitez, amesten duzuna. Nahi duzun hori hautatu eta lortu arte borrokatu, hori da ezberdin egingo zaituena, horretan oinarritzen da bizitza.

AKERBELTZ
09.23 - 10.22
Pentsatu duzu inoiz kotxearen ordez oinez, bizikletaz edo garraio publikoan joatea lanera? Etxean zaborra sailkatzeagatik ekologistatzat daukazu zure burua! Ez izan itxurazalea, ondo dakizu horrekin bakarrik konponbiderik ez dagoela!

MARI
10.23 - 11.22
Libre sentitzen zineneko garaiak faltan dituzu. Gizarteko beste txontxongilo bat zarela ohartu zara. Moztu itzazu orain tenkatuta sentitzen dituzun kordak. Ez suntsitu txikitatik eraikitzen saiatu zaren ametsak, ekiozu bideari beldur barik!

ZIRIPOT
11.23 - 12.20
Berandu iristen bazara ez da semaforo gorriaren iraupena luzatu dutelako! Zuk ondo dakizu ordularia baino gehiago atzeratzen zarela, gogoratu zure denborak besteenak beste balio duela.

SUGAAR
12.20 - 01.19
Beti izan zara lan talde guztietan arduradun bakarra. Denek zu gertu izan nahi zaituzte euren probetxurako, berrerabil daitekeen paperaren moduan sentitzen zara. Berritu behingoz, paregabea zarelako errespetatu zaitez!

_irakurlearen txokoa

_agenda

11.06 OSTEGUNA

18:30 LAUDIO
FOROBUS
Berdintasunaren aldeko zinema emanaldia
Lamuza Plaza

19:30 URDUÑA
DVD EMANALDIA
"La memoria en femenino"
Argizkaren eskutik
Kultur Etxea

11.07 OSTIRALA

10:00 LAUDIO
HITZALDIA
Bertsolaritza, zer da hori?
Ruben Sanchezen eskutik
Kultur Etxea

19:00 URDUÑA
URDUÑA FEMENINOAN
Emakumeek antzinako ogibideak azalduko dituzte
Kultur Etxea

19:00 AMURRIO
HITZALDIA
Paseko mendietatik Valaiseko Alpetara
Katekesi Aretoa

19:30 AIARA
ZINEMA EMANALDIA
Aiarako III. filma laburren emanaldia
Arespalditzako Udaletxea

19:30 ARETA
PILOTA PARTIDUAK
V. Elite 4 ½ txapelketa
Frontoia

21:00 OROZKO
BERTSO AFARIA
Amets Arzallus eta Igor Elorza, 25 euro
Eskola

22:30 LAUDIO
KONTZERTUA
The Bon Scott Band
Sorgin Taberna, 10 euro

23:30 URDUÑA
KONTZERTUA
Gwa Ya eta No mes 3/6
Amnesia Taberna

11.08 LARUNBATA

10:00 OROZKO
HITZALDIA
Kolorezko iraganaren zertzeladak
Orozko Museoa

10:00 OKONDO
IKASTAROA
Xaboiak eta kremak egiteko ikastaroa
Jubilatuen etxea

10:00 AMURRIO
JUDO TXAPELKETA
Nazioarteko txapelketa
Bañueta Kiroldegia

17:30 LAUDIO
UMEENTZAKO AISIALDIA
Sorgin Zapatuak
Kultur Etxea

18:30 AIARA
HITZALDIA
Euskal Herriko mapak
Arespalditzako Udaletxea

LEZAMAKO JAIAK

11.07 OSTIRALA
24:00 **Diskodantza**

11.08 LARUNBATA
17:30 **Haurrentzako jolasak Eragintzaren eskutik**
19:30 **Herri arteko herri kirolak**
22:00 **Herri afaria**
24:00 **Berbena: Honat**

7 eta 8an doako autobusak:
Irteera: 23:30 Amurrioko Telefonica-tik
Itzulera: 05:00

11.09 IGANDEA
16:30 **Mus txapelketaren izen ematea**
17:00 **Mus txapelketa**

19:00 URDUÑA
URDUÑA FEMENINOAN
Emakumeek antzinako ogibideak azalduko dituzte
Kultur Etxea

20:00 OROZKO
GASTRONOMIA
Pintxoak dastatzeko aukera egongo da
Arbaiza Txokoa

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Vertigo: U2 taldeko abestiak
Drumgorri Aretoa

11.09 IGANDEA

11:00 ARTZINIEGA
MUSEO BIZIA
Antzinako ogibideak erakutsiko dituzte
Etnografia Museoa

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Solastiar eta Avillo elkarteen 20. urteurrena
Done Petri Eliza

19:30 AIARA
ZINEMA EMANALDIA
Aiarako III. filma laburren emanaldia
Arespalditzako Udaletxea

11.12 ASTEAZKENA

18:30 LAUDIO
HITZALDIA
Harreman afektibo sexualak espetxean
Gure Aukera

18:30 LAUDIO
LITERATUR TAILERRA
Munduko literatura
Kultura Etxea

11.13 OSTEGUNA

18:00 AIARA
HITZALDIA
Antsietatea, estresa, depresioa
Arespalditzako Udaletxea

ZOLLOKO JAIAK

11.11 ASTEARTEA
12:30 **Pilota partiduak**
Etxebarria aita semeak
19:30 **Txerrikia, etxeko ogia, Fita Fik**

11.14 OSTEGUNA
22:30 **DJ Bull**

11.15 LARUNBATA
12:00 **Enaitz ipuin kontalaria**
15:00 **Ume eta gazteen bazkaria eta gero Bingoa**
19:00 **Uluka**
kafe, esnea eta bizkotxoak
21:00 **Erramun Martikorena**
23:30 **Siroka, Governos, Tximeleta**

11.16 IGANDEA
12:30 **Nafarroa kanta taldea**

11.22 LARUNBATA
14:00 **Herri bazkaria eta triki-tilariak**

Ugaoko tren geltokitik autobusak 20:30tik 05:30etara

18:00 LAUDIO
ANTZERKIA En la plaza de mi pueblo Orbeko Etxea

11.14 OSTIRALA

19:00 AMURRIO
HITZALDIA
Trans Classic Pirene
Katekesi Aretoa

22:30 LAUDIO
KONTZERTUA. MCD
Sorgin Taberna

ZINEMA

11.08 LARUNBATA

"LA ISLA MINIMA" LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:00etan (3€)

11.09 IGANDEA

"CÓMO ENTRENAR A TU DRAGÓN" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 17>30ean (4,80€)

"EL NIÑO" OROZKO DONIBANE ARETOA 19:00etan

"LASA ETA ZABALA"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean (4,80€)

11.10 ASTELEHENA

"LASA ETA ZABALA"
AMURRIO ANTZOKIA
20:00ean (3,60€)

11.11 ASTEARTEA

"GUILLAUME Y LOS CHICOS, ¡A LA MESA!" LAUDIOKO LHUI 18:30ean DOAKO EMANALDIA

11.15 LARUNBATA

"RELATOS SALVAJES" LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:00etan (3€)

11.16 IGANDEA

"CAMPANILLA, HADAS Y PIRATAS" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean

"RIO 2"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean (3,60€)

"LUCY" OROZKO DONIBANE ARETOA 19:00etan

"BETIBU"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean (4,80€)

11.16 IGANDEA

"BETIBU" AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60€)

AMURRIO ANTZOKIA

AZAROAK 08
Antzerkia (gaztelaniaz):
"AQUÍ VA A PASAR ALGO"
20.00 (8€)

AZAROAK 09
Haurrentzako antzerkia:
"HIRU TXERRITXOAK ETA OTSOA"
17.30 (3,60€)

AZAROAK 15
Zarzuela emankizuna:
"LUISA FERNANDA"
19.30 (15€)

Elexondo 26, **Amurrio** (Araba)
Tlfnoa: 945 89 14 50
www.amurrio.org

Jimmy jazz gasteiz

AZA 13 // ALFRED BERENGENA-ren BATERIA "CLINIC"-a (Soziedad Alkoholika)
20:00 (Sarrera doan)

AZA 14 // SôBER + Contrabanda
20:00 (15 / 18 €)

AZA 15 // MOMO 'The Best Tribute to QUEEN'
21:00 (20 / 25 €)

AZA 20 // AURORA & THE BETRAYERS
21:00 (12 / 15 €)

AZA 27 // PERE UBU
20:30 (15 / 18 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

TXALETA SALGAI ARRANKUDIAGAN
Prezioa: Kontsultatzeke
360 m², 4 logela, 3 bainugela, sukaldea tximiniarekin, garajea, 1.150 m²-ko lursaila, 2 autoentzako garajea.
Erref.: 167.528

LURSAILA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
648 m², familiabakarreko edo bi bizitzako etxea eraikitzeko aukera, 760 m²-ko eraikigarritasun maximoa, guztiz urbanizatua.
Erref.: 167.525

BASERRIA SALGAI AIARAN
Prezioa: 190.000 €
360 m², beheko eta lehenengo solairuaz osatuta dago, 14.000 m²-ko lursaila, beharrezko eraberritzea.
Erref.: 167.519

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 91.000 € negoziagarria
55 m², 2 logela, bainugela, balkoia, altzariz hornitua, eraberritua, kanpoaldera
Erref.: 162.762



www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu

MENDIETA NATURAREN INGURUKO JARDUNALDIAK: Mendiko Lagunak taldeak berriro antolatu ditu lau hitzaldi kirola eta natura uztartuz. Antolatutako argazki lehiaketaren sariak ere emango dituzte.

BERTSO AFARIA: Berbaz Kultura Alkarteak bertso afaria antolatu du bere jarduera finantzatzeko. Amets Arzallus Euskal Herriko Bertsolari Txapelduna ez ezik Igor Elorza ere arituko da.

_kontra

aiaraldea

Lourdes Menoyo eta Jose Ramon Martinez

"Gure gazta erdiagatik ordaindutako 7.500 euroak ez dira guretzat, proiektu sozialetarako baizik"

LOURDES MENOYO MENDIA (Aginaga 1958) eta JOSE RAMON MARTINEZ ELEJALDEk (Bilbo, 1953) Larrabe gaztandegia kudeatzen dute. Gernikako azokan lehen saria lortu dute eta bere gaztaren truke 7.500 euro.

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Gabonetan iragarkietan ikus dezakegu "munduko turroirik garestiena" esaten dutela. Orain zuen gazta da Aiaraldeko garestiena?

Itxuraz, baina itxuraz bakarrik. Txapelketan asko ordaindu dutelako, bestela ez.

Hainbat sari dituzue, ezta?

Lehenengo urtetik jaso ditugu sariak. Duela 13 urte hasi ginen. Amurriora lehenengo aldiz joan ginenean jaso genuen lehen saria. Artziniegan ere, Sanmateo oraindik ospatzen zuten eta lehen saria eskuratu genuen.

Jendeak aintzat hartu behar du gazta mota bera ezin dela bi txapelketa ezberdinetan aurkeztu. Adibidez, Gernikako gazta mota bera ezin dugu beste txapelketa batean erabili. Sorta ezberdina izan behar du bakoitzean. Gazta bakarra sorta bakoitzeko, hain zuzen.

7500 euro ordaindu dituzte zure gazta lortzeko baina diru hori ez duzue zuek kobratu, ezta?

Jendeak uste du gaztandegiak jasotzen duela diru hori, baina ez da horrela. Gazta aurkezten duzunean oinarri batzuk daude eta sariak zehaztuta daude.

Eta horretaz gain, gazta sarituak enkantean saltzen dituzte eta diruaren helburua proiektu soziala babestea da. Gernikakoa adibidez nagusien egoitzarako da.

Sariek esan nahi dute produktu ona duzula?

Sariak baino fidagarriagoa da jendearen iritzia, gustatzen zaion edo ez alegia. Niri gehiago gustatzen zait jendeak behin erostea eta gero behin eta berriro itzultzea. Horrek esan nahi du gazta gogokoa duela.

Saria jasotzea atsegina da, baina askoz hobeagoa da ikustea jendeak gustuko duela zure gazta.

Eta hori askotan gertatzen da?

Bai, gure bezeroak berdinak dira gutxi gorabehera. Beti etortzen da jende berria baina bezero finkoak ditugu. Eta horiek dira zaindu behar direnak.

Gazta txapelketa irabazteko zenbat gazta egin behar dira? Bat-batean ez da gertatuko, ezta?

Bada hasiberriaren zortea ere! Lehenengo gazta, agian izugarria gera daiteke baina azken finean ohitura hartzea da: oso metodikoa izatea eta gauzak egunero ondo egitea. Ez da egun bakarreko kontua.

5000 gazta baino gehiago, ia 6000 egiten ditugu urtero.

Miren
Ayesa
KAZETARIA

_Leihotik

Arabarrak halakoak gara

Gure iritziak hedabideetan ikusten dugunarekin eta kalean entzuten ditugun zurrumurruekin sortzen baditugu, arabarrak xenofoboak garela esan genezakeen, gobernatzen gaituztenek aurreiritzietan oinarritutako adierazpenak egiten dituztelako. Beharbada insolidarioak gara, egoera kezkagarrian dauden herritarren eskubideak murriztu nahi ditugulako, eta gure egoera abantailatsutik laguntzak zeinek jaso behar dituen eta zeinek ez erabakitzeko eskubidea gurea besterik ez dela pentsatzen dugunez, klasistak garela esango nuke. Ustelkerietan aritzea gustatzen zaigu, azkar batzuek amarruak egiten badituzte, orduan guztiok guretzako etekinak atera nahi ditugula ondorioztatu daiteke. Eta ergelak, egoera larri hau sortu dutenek lasai dauden bitartean pobreen kontra jotzen dugulako, boteretsuetatik behartsuetatik baino hurbilago gaudela pentsatuz. Baina ez dira gauza guztiak negatiboak, eskuzabalak ere bagara, gure botoari esker instituzioetan daudenak lagunen artean banatzen dute diru publikoa eta normaltzat hartzen dugu. Badakit generalizazioek errealitatean distortsioa eragiten dutela, baina nire ingurua sinpletasunez aztertzen dut beti.

elkarlan
asesores
www.elkarlan.eu
Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51
Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28
Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat
www.elkarseguro.com